

HERNANIK kronika

2003 urtea
Uztailak 28
Astelehena
Alea: 835
www.kronika.net



Arte erakusketa Txillida-lekuo Zabalaga baserrian dago jarrita. Argazkian, jendea arte lanei begira, aditu bat azalpenak ematen ari zaien bitartean.

Txillidaren 40 arte lanetik gora jarri ditu Telefonica Fundazioak Txillida-Lekun

■ Erakusketa 41 arte lan ikusi daitezke: burnian, egurrean eta terrakotan egindako eskulturak, grabatuak, marrazkiak eta collage-ak ■ Erakusketa jarri dute Eduardo Txillida hil zela urtebete betetzen dela gogoratzeko ■ Irailaren erdialdera arte dago ikusgai erakusketa Txillida-leku.

TELEFONICA Fundazioak Txillidaren 40 artelanetik gora jarri ditu Txillida-leku, artista hernaniarra hil zela urtebete betetzen denean. 40 arte lanen artean daude burnian, egurrean eta terrakotan egindako eskulturak, grabatuak, marrazkiak eta collage-ak. Lehendabiziko aldia da artistaren 41 obra horiek Txillida-leku jartzen dituztela, eta jendeak ikusteko aukera izango du irailaren erdialdera arte.

Artistaren obra ezberdinak
Erakusketa arduradunen esanetan, 41 obra horietan ga-

rrantzitsuena *Homenaje a Juan Gris* obra da. Lan horrek Txillidaren poema bat dauka, Picassori eskainia. Beste gain-erantzeko 40 lanetan, material eta ideia asko nahasten dira. Pinturan egindako irudiek marra fin eta sutilak dituzte, pixkanaka bizitza hartzen dioaztenak. Eskulturetan materiaren sakontasuna ikusi daiteke; edo beste lan batzutan, argitasun momentu bat harrapatzen du artistak, adibidez, itsasoko aparra irudikatzen duenean. Hori guztia grabilitate eta lebitazio giro batean dago bilduta, eta espazio-

aren eta masaren arteko estetika ere sumatu daiteke.

Erakusketa dauden obrak 80garren hamarkadakoak dira, hain justu, artistaren garairik oparoenekoak. Baina, bada bat 1962an egindakoa ere: *Yunque de Sueños XIII*. Eskultura hori Txillida Frantziatik etorri ze-nean egindakoa da, bere burua ezagutzera ematen ari zen garaikoa.

Telefonicaren Arte Kolekzia
Telefonicak 1983an sortu zuen bere arte bilduma, eta bertan biltzen ditu XXgarren mendeko 5 artisten 100 bat obra. Horiek

dira Luis Fernandez, Juan Gris, Pablo Picasso, Antonio Tapies eta Eduardo Txillida bera.

Bartzelonan, Valentzian eta Madrilen

Txillida-leku dauden 41 lanak, Valentzian, Bartzelonan eta Madrilen ikusi daitezke urtean zehar, Telefonikak hiru hiriburuan horietako museo eta institutu utzita baitauzka. Madrileko Reina Sofia Arte Museo Nazionalean; Bartzelonako Arte Kontemporaneoaren Museoan; eta Valentziako Arte Modernoaren Institutuan. Telefonikak prestamo bidezko kontratu bat

dauka egina museo eta institutu horiekin, urtean zehar dauden lekuak erakusgai egon daitezzen. Orain obra horiek Txillida-leku dauden bitartean, museo horietan Txillida-leku obra batzuk hartuko dituzte.

Txillida hil zen urteurrena
Eduardo Txillida hil zela urte bat bete da aurten, eta hori gogoratzeko eta artistaren aldeko omenaldi bezala jarri nahi izan dute Telefonicaren erakusketa Txillida-leku museoan.

Erakusketa irailaren erdialderako arte dago ikusgai Txillida-leku museoan. □


ETXE OMENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS" ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
943 33.22.37


brintza
Brintza, S.L.

Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskalak
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Urbina 15
Tel.: 943 331267
Faxa: 943 330892
20120 Hernani


mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI


**IKASTAROA LANGABETUENTZAT
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA**
(*"Técnico Medio"* tituloa)
-INEMek subentzionatua-

300 ordu
Hasiera: Irailaren 9an
Bukaera: Abenduaren 4ean
Ordutegia: 14:00 -19:30
asteluhenetik ostiraletarra


urrolalde

UROLALDE AKADEMIA
Oindi kalea 1 - HERNANI - 943 33 37 11 - 943 33 42 27

■ PELOTA - DENBORALDI BUKAERAKO BAZKARIA



Hernaniko pelotari gazteak, larunbatean Santa Barbara elkartean izandako bazkarian.

Hernaniko pelotarieiek 9 txapelketa eta 13 txapel irabazi dituzte pasa berri den denboraldian

■ Jokatutako 14 txapelketetatik 9 irabazi dituzte eta 5 galdu ■ Hernaniko Pelota Elkarteko arduradunek balorazio ona egin dute denboraldiaren.

HERNANIKO pelotarieiek 14 txapelketetatik 9 irabazi dituzte bukatu berri den denboraldian, eta jantzi dituzten txapelak 13 izan dira. Pelota Elkarteko Arduradunek gustora egoteko motiboa badute eta hala azaldu zuten joan den larunbatean, Santa Barbara elkartean egindako Pelota Elkarteko bazkarian.

Gipuzkoako txapelketetan 4 txapel lortu dituzte; Euskadiako 7; Federaziokoa bat eta Gipuzkoaren izenean irabazia beste bat.

Txapeldunordeak bost txapelketetan
Bederatzi txapelketa irabazteaz gain, beste bost al-diz bigarren gelditu dira hernaniarrak. Horien artean

dago Gipuzkoako Herri Artekoan lortutako bigarren postua, besteak beste. Gainerako bigarren postuak ere Gipuzkoako txapelketetan lortu dituzte Hernaniko pelotarieiek.

Larunbatean Pelota Elkarteko afaria

Joan den larunbatean bes-talde, Pelota Elkartekoak bazkaria izan zuten, Santa Barbara elkartean. Urtero-ko bazkaria zuten Hernaniko pelotarieiek eta arduradunek, eta giro onean egon ziren denboraldia bukatu dutela aprobetxatuta.

Pelota Elkarteko ardu-radunek bazkarian izango zuten balorazioa egiteko aukera eta aurtengo denboraldiarekin gustora azaldu ziren. Datorren urterako ere animoso daude. □

TXAPELAK	
Gipuzkoan	Eskuzbinaka albia
Iñaki Lazcano	Eskuzbinaka albia
Briza mesta	Eskuzbinaka albia
Paulo jiel	Eskuz trinketeen kadetea
Suharri Irazustabarrena	Eskuz trinketeen kadetea
Euskadiakoak	
Jon A. pao hza	Eskuz trinketeen kadetea
Endika Ramos	Eskuz trinketeen kadetea
Paulo jiel	Eskuz trinketeen kadetea
Jon G. Umiltaga	Eskuz trinketeen jibenila
Suharri Irazustabarrena	Eskuz trinketeen jibenila
Goitz M. anizidor	Paleta gom aznagusia
Amaia M. artzez	Paleta gom aznagusia
Federazioakoak	
Goitz M. anizidor	Paleta trinketeen nagusia
Gipuzkoaren izenean	Paleta trinketeen nagusia
Am. aia M. artzez	Paleta trinketeen nagusia
TXAPELDUNORDEAK	
Gipuzkoan	Eskuzbinaka infantil
Jon Ezeiza	Eskuzbinaka infantil
Iñaki G. jaizkibel	Eskuzbinaka kadetea
Aitor G. omo bategi	Paleta gom az jibenila
Patricia Hoz	Paleta gom az jibenila
Karlos Lujambio	Eskuz trinketeen nagusia
Aitor Sarasua	Eskuz trinketeen nagusia
Unai Aizpuru	Eskuz trinketeen nagusia
Herri artekoan	
Belen A. Izquierdo	Eskuzbinaka kadeteak
Aitor G. omo bategi	Eskuzbinaka kadeteak
Mikel Aizpuru	Eskuzbinaka jibenilak
Mikel Otegi	Eskuzbinaka jibenilak
Gorka Izquierdo	Eskuzbinaka nagusia
Oier M. Endizabal	Eskuzbinaka nagusia

SAN INAZIO JAIAK

Zelaia, Sorozabal eta Agirrek saio ederra

ZELAIA, Sorozabal eta Agirrek bertso bazkari ederra egin zuten atzo, Arrigoain jatetxeen, Santa Barbarako San Inazio jaien barruko ekitaldian. Ordu eta erdiz-bi orduz aritu ziren hiru bertsolariak 40 bat lagunei kantuan. Bai libreatan eta baita ondoren gaietan ere, maila altua eman zuten bertsolariek eta inguratutako jendeak izugarri gozatu zuen. □



Iñaki Zelaia kantuan, Arrigoain jatetxeen.

SANTIOAK ARANON ETA ASTIGARRAGAN



Aranoko pelota txapelketako sarituak, finalak jokatu eta gero.

Bukatu dira Santio jaiak Arano eta Astigarragan

■ Eguraldiak ez zion eutsi azken egunean.

EGURALDI pattal xamarra-rekin bukatu ziren atzo Santio jaiak Astigarragan eta Aranón. Aranón Gorritiren Show-a, artzai zakurren erakustaldia eta pailazoak izan zituzten fes-tei bukaera emateko eta Astigarragan Iker Ruiz zenaren omenezko saskibaloi sariketa izan zuten eguneko ekitaldi-nagusia. Giro kaxkarra azaldu zuen eguraldiak atzoko egune-an baina, aurreko egunak ondo

joan dira bai Astigarragan eta bai Aranón, eta jendeak uste bezala erantzun du bi herrietan.

Oilasko jatean elkarreta bete
Aranón jende dexente ibili da festak irauen duen lau egunetan, baina jenderik gehiena urtero bezala oilasko janera bildu da. Larunbatean 120 lagun inguru afaldu zuten San Roque elkartean eta hori gaueko giro-an ere antzemango zen □

PLATER TIRATZEA

Redondo eta Estarloa lehenengo, ostiraleko plater tiratzean

■ Zerain laugarren, aurreneko postutik plater batera.

JOAN den ostiralean plater tiratzea izan zen Irungo San Martzial tira-lekuaren. Hernaniarrek hiru sari irabazi zituzten hiru kategoria ezberdinaren, eta maila altaua eman zuten.

irabazi zuenarengandik plater bakarrera.

Maila alta

Maila altuko txapelketa izan zen ostiralekoa, Hernaniko Txirria elkartetik Kronikari jakin arazi diotenez. Iparraldeko eta hegoaldeko tiralari-rik onenak bildu ziren Iruden, eta 21 tiratzailek lortu zuten 100 plateretik 92 edo gehiago jotzea. Horregatik, hernania-rrek hiru sari ekarri izana poz-garrria da Txirtako ustez, □

IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: 943 55 63 68

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lanerako. Kondizio onak. Interesatuek deitu: 660 982 145 edo 678 058 003.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

ASTELEHENAK	FARMAZIAK
► Taxiak: 943 550093	► Egunez: Bilbao-Sagas Urbieta 7 ☎ 943 552941
► Udalzaintza: 943 333288	► Gauez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942
► DYA: 943 464622	► Egunez: Gomez Justel Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892
► Anbulutorioa: 943 006666	► Gauez: Gomez Justel Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892
► Jokalarri anonoimoenak: 943 331103	